

AMATXO

- Zuk atera ninduzun
mundu honen
lau aizetara,
zuk jarri ninduzun
bizitzaren bidetan,
zuk erakutsi zidazun
dakidan guztia.

- Zurekin ezagutu ditut
legorra eta ltsasoa,
ura eta sua,
gorrotoa eta maitasuna.
Zuk erakutsi didazu
Gizarte honen gauzak
esberdintzen,
aukeratzen.

Erakutsi didazu
non hasten da bidea,
non bukatzen dira zuhaitzak,
non gordetzen dira otsoak.
Orain neri tokatzen zait
bidearen bukuera
bilatzea,
gorroto eta maitasunaren artean
aukeratzea,
bide herritikan
jarraitzea.

Zuk nahikoa
erakutsi zidazun,
orain neri tokatzen zait
ikasten
bidearen sarrerara
eraman nauzu,
orain nik bilatu beharko dut
irteera.
Eskerrik asko
Amatxo!

KARLOX BARRENTSORO

